

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza

Jendaurrean jartzen baitira Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» eguzki-planta fotovoltaiakoetarako eta horiekin lotutako ebakuazio-azpiegitura komunetarako aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak

Energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenerako prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan eta Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin bat etorritik, jendaurrean jartzen dira «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» instalazio fotovoltaiakoei eta horiekin lotutako ebakuazio-azpiegitura komunei dagozkien banakako proiektuak eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, batera eginak.

Proiektuak eta hasierako ingurumen-inpaktuaren azterketa iragarkien bidez argitaratu ziren, hauetan: 2024ko maiatzaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta 2024ko maiatzaren 8ko ALHAOn. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten izapideen ondorioz, sustatzaileak proiektuak eta ingurumen-inpaktuaren azterketa bateratua aldatu ditu. Hori dela bidez, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 38. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, jendaurreko informazioaren izapidea berriz egin behar da.

- Eskatzailea: Solaria Eguzki Sorkuntza, SL (IFK: B72752959).
- Eskaeren xedea: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
- Helburua: eguzki-teknologia fotovoltaiakoaren bidez energia elektrikoa sortzea (b1.1).
- Garraio-sarera ebakuazio-puntua: Zierbena 400 kV azpiestazioa, Red Eléctrica de España SAUrena.

– Ebakuazio-azpiegitura komunak, “Solaria Zierbena Solar 2”, “Solaria Zierbena Solar 3” eta “Solaria Zierbena Solar 4” ez ezik, sustatzaile beraren beste proiektu batzuekin partekatuko da, garraio-sarearen korapilo berean sartzeko eta konektatzeko baimenak baitituzte, garraio-sarearen kudeatzaileak emanda.

Espedientea: 01-GE-Y-2023-00033.

- Solaria Zierbena Solar 2» proiektua:
 - Solaria Zierbena Solar 2» eguzki-planta fotovoltaiakoa, 49,895 MW-koa, Erribera Beitiako udalerrian kokatua (Araba).
 - Ribera 220/30 kV azpiestazioa, Erribera Beitiako udalerrian kokatua (Araba).
 - Eragindako udalerriak: Erribera Beitia.
 - Instalazio fotovoltaiakoaren deskribapena: 580 Wp-ko potentziadun 103.432 panel fotovoltaiako eta 2.935 kW-ko 17 inbertsore, guztira 49,895 MWn-ko potentzia instalatuta dutenak.

- Eguzki-plantak eragindako azalera: 112,352 ha.
- Instalazio fotovoltaikoaren aurrekontua: 16.593.234,00 euro.
- Erribera azpiestazioaren aurrekontua: 2.339.471,00 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena Arabako Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta jendaurreko informazioaren izapidea bete behar du. «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» proiektuen eta ebakuazio-azpiegitura komunaren ingurumen-inpaktuaren azterketa ere jendaurrean jarri behar da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera. Bi izapideak batera egingo dira.

Espedientea: 01-GEY-2023-00034.

- Honako honetan datzan «Solaria Zierbena Solar 3» proiektua:
 - «Solaria Zierbena Solar 3» eguzki-planta fotovoltaikoa, 49,895 MW-koa, Zigoitiko udalerrian (Araba).
 - Gopegi azpiestazioa, 220/30 kV, Zigoitiko udalerrian (Araba).
 - 220 kV-ko zirkuitu bikoitzeko aireko eta lurpeko ebakuaziorako linea, Gopegi azpiestazioaren eta Zuia azpiestazioaren artean, HE Gopegi- Gopegi lotunean zatian, Zigoitia eta Zuia udalerrietan (Araba).
- Eragindako udalerriak: Zigoitia eta Zuia (Araba).
- Instalazio fotovoltaikoaren deskribapena: 580 Wp-ko potentziadun 103.432 panel fotovoltaiko eta 2935 kW-ko 17 inbertsore, guztira 49,895 MWn-ko potentzia instalatuta dutenak.
- Eguzki-plantak eragindako azalera: 85, 514 ha.
- Instalazio fotovoltaikoaren aurrekontua: 16.593.234,00 euro.
- Gopegi azpiestazioaren aurrekontua: 2.917.586,00 euro.
- 220 kV-ko ebakuazio-linearen aurrekontua, HE Gopegi-Entronque Gopegi: 3.493.789,53 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena Arabako Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta jendaurreko informazioaren izapidea bete behar du. «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» proiektuen eta horien ebakuazio-azpiegitura komunaren ingurumen-inpaktuaren azterketa ere jendaurrean jarri behar da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera. Bi izapideak batera egingo dira.

Espedientea: 01-GEY-2023-00035.

- Honetan datza «Solaria Zierbena Solar 4» proiektua:
 - «Solaria Zierbena Solar 4» eguzki-planta fotovoltaikoa, 49,895 MW-koa, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba).
 - Martioda 220/30 kV azpiestazioa, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba).
 - 220 kV-ko zirkuitu bikoitzeko aireko ebakuazio-linea, Martioda azpiestazioaren eta Zuia azpiestazioaren artean. HE Martioda–Martioda lotunea zatia, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba).
- Eragindako udalerriak: Vitoria-Gasteiz (Araba).
- Instalazio fotovoltaikoaren deskribapena: 580 Wp-ko potentziadun 103.432 panel fotovoltaiko eta 2935 kW-ko 17 inbertsore, guztira 49,895 MWn-ko potentzia instalatuta dutenak.

- Eguzki-plantak eragindako azalera: 86,50 ha.
- Instalazio fotovoltaiakoaren aurrekontua: 16.593.234,00 euro.
- 220 kV ebakuazio-linearen aurrekontua, HE Martioda-Martioda lotunea zatia: 1.138.650,60 euro.
- Martioda azpiestazioaren aurrekontua: 3.314.907,00 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena Arabako Lurralde Ordezkaritzaren esku-mena da, eta jendaurreko informazioaren izapidea bete behar du. «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» proiektuen eta ebakuazio-azpiegitura komun ingurumen-inpaktuaren azterketa ere jendaurrean jarri behar da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera.

Espedientea: 01-GEY-2025-00010 (01-GEY-2023-00033 espedientetik bereizia).

- Honetan datza “Ebakuazio-azpiegitura komunak” izeneko proiektua:
- Zuia azpiestazioa, 400/220 kV, Aiarako udalerrian kokatua (Araba).
- Luzuero azpiestazioa, 400 kV, Zierbena udalerrian kokatua (Bizkaia).
- Erribera-Zuia 220 kV-ko eta Zuia-Luzuero 400 kV-ko aireko eta lurpeko ebakuazio-linea, Erriberabeitia, Armiñonen, Erriberagoitia, Iruña Okan, Vitoria-Gasteizen, Zuian, Urkabustaitzen, Amurrión, Aiara eta Okondo (Araba) eta Gordexolan, Gueñesen, Galdamesen, Abanto eta Zierbenan (Bizkaia).
- 400 kV E/S lurpeko ebakuazio-linea, CTCC BBE (TG1) -Zierbena, CTCC BBE (TG2) -Zierbena eta CTCC BBE (STV) -Zierbena zirkuituetan, Zierbenako udalerrian (Bizkaia).
- Eragindako udalerrak: Erribera Beitia, Armiñón, Erriberagoitia, Iruña Oka, Vitoria-Gasteiz, Zuia, Urkabustaiz, Amurrión, Aiara eta Okondo (Araba) eta Gordexola, Gueñes, Galdames, Abanto eta Zierbena (Bizkaia).
- Zuia azpiestazioaren aurrekontua: 16.650.194 euros.
- Luzuero azpiestazioaren aurrekontua: 26.605.167,00 euros.
- 400 kVko eta 220 kVko aire eta lurpeko linearen aurrekontua: 97.274.875,82 euros.
- 400 kVko Luzuero azpiestazioan lurpeko linearen aurrekontua: 1.879.459,93 euros.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena Deskarbonizazio zuzendaritzaren esku-mena da, eta jendaurreko informazioaren izapidea bete behar du. «Solaria Zierbena Solar 2», «Solaria Zierbena Solar 3» eta «Solaria Zierbena Solar 4» proiektuen eta ebakuazio-azpiegitura komun ingurumen-inpaktuaren azterketa ere jendaurrean jarri behar da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua arabera.

Hori guztia argitara ematen da interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa aztertu ahal izan dezaten, Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz), Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, Bilbo) edo URL honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>.

Arabako eta Bizkaiko lurralde-ordezkaritzetan, egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai euskarri fisiko idatzian, haien erregistro orokorrean, bai EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektroniko orokorrean, URL honetan: <https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduetan, 30 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela

administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, horietako edozeinek jendaurreko informazioaren izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 4a

Deskarbonizazio zuzendaria

GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ